



DIE REISE

# BIDAIA



BIDAIA, Alemania eta Euskal Herriko diziplina anitzeko 12 artista biltzen dituen ikuskizuna da. Musikari zor diogun maitasunak eraginda, 1500 kilometroko distantzia fisikoa behin ta berriz igaro dugu. Hala ere, bidearen joan etorri honetan, testuek, ahots ezberdinek, eta gorputzen mugimenduek dramaturgia eszeniko zaindu eta fina eraiki dute. Jakinmina izan da gure motorra, pasioa gure gasolina eta abenturaren nahia, nabigatzeko gure era bakarra.

BIDAIA Oratoria garaikidea da. Bizitzarekiko jakinmin eutsiezinak eragindako barne bizi bidaia.



# BIDAIA

# MARCUS ENGLERT & HIKA TEATROA

Bidaia honen lehen hazia 2021ean landatuko da, Marcus Englert musikari eta konpositore alemaniarrak urte hartako lehen hilabeteetan, Itziar Ituño euskal aktorea **EL VIAJE / DIE REISE** kantua abestera gonbidatzen duenean. Honen ondorioz, Marcus Englert-ek abentura handiago batean murgiltzeko bulkada sentitu eta Euskal Herria eta Alemaniaren arteko BIDAIA eszenikoa irudikatuko du. Alemaniako musikariez gain, lehenik, Itziar Ituño bera gonbidatzen du parte hartzera proiektuan. Xabier Zeberio biolin jotzailea eta haren taldea Allos Quartet gehitzen dira laster batean. Jarraian lotzen dira Amaia Elizaran, Eneko Gil/Gorka Durán dantza interpreteak mugimendu partitura moldakor batekin. Eta euskal folkloreaken erritmoak, Janire Egañak eta Itziar Ituñok osatzen duten Dangiliske taldearen esku uztea naturala gertatuko da. Azkenik, bidaiari talde ospetsu hau, Agurtzane Intxaurrearekin, HIKA Teatroko zuzendariarekin jarriko da harremanetan eta hark bere gain hartuko du ikuskizunaren ekoizpena, zuzendaritza eta dramaturgia eszenikoaren sormen lana. **HIKA TEATROAK sinergiak sortzeko eta sormenenarekin bidaiatzeko aukera modura hartuko du proiektua.**





MARCUS ENGLERT musikaria da profesioz  
ITZIAR ITUÑO aktorea aktorea.  
Euskal kulturaren enbaxadorea munduan  
MARCUSEk musika sortzen du  
ITZIARrek bere ahots sendoarekin musika egiten du  
ITZIARren ahotsa bere herriari lotua dago  
Lau haizetara zabaltzen duen ahotsa da  
Euskararen doinuak munduko plazan jalgiz  
Aldiz, Marcusen musikak bihotzetik hitz egiten du  
Esan egiten du, oihu egin  
Argi eta ilun  
Beti sakon

# BIDAIA





# DIE REISE

Bizipenak, esperientziak, emozioak, hitzak, abestiak, begiradak, gorputzak, usainak eta paisaiak norberaren barnean bizi den leku batetik partekatzeaz **HITZ EGITEN DU.**

Ellen Mc Arthur edo Gilen Humboldt bezalako bidaiari handiez **HITZ EGITEN DU.**

Egungo Europaz eta hura zeharkatu eta inguratzen duten hamaika muga eta hesiez **HITZ EGITEN DU.**

Marcusen partiturez eta Itziarren emozioen paisaiez **HITZ EGITEN DU**

Hitzez eta maletez **HITZE GITEN DU**

Joan etorrian dabiltzan postalez **HITZ EGITEN DU.**

**Musikaz HITZ EGITEN DU.**

2021ean Marcusek Itziarri galdera zehatza jaurtiko dio.

-Jarraituko dugu bidean elkarlanean?-  
Itziarrek, abenturazale amorratua izanda eta bidai hau abentura hutsa dela sinetsita, baiezkoa emango dio



Ulises aspaldi abiatu zen Itacatik eta harrez geroztik asko izan dira haren itzalean egin dutenak bidaia. Orduko hartan, ordea, emakumeak, Penelope izenarekin ezagunak zirenak, zain geratu ziren. Hori egun batez gertatu zen. Aspaldi.

Orain ez. Penelope orain ez dago inoren zain. Penelopek ez du gehiago itxaroten. Ezagutu eta sentitzeko nahiak bultzatuta, orain gure gorputzean bizi den emakume Penelopea da ibiliz doana, bilatu eta aurkitzen duena, galdetzen duena eta lau haizetara oihu egiten duena.

Hauxe gara gu. Hauxe naiz ni. Bizitzaren gerlaria.

ITZIARren ahotsean



# BIDAIA





Gure moduko bidaiariak, gutxitan iristen dira inora. Egonezinak mugitzen gaitu eta uneoro zapaltzen dugun tokia, horixe da gure etxea. Izan daiteke itsasoaren ondoan, izan daiteke mendi magalean, Alemaniako Härtsfeld ibaian edo Bilboko txurdinagako metro geltokian.

Azkenean beti topatzen da bat bere buruarekin "hemen nago" esaten.

MARCUSen ahotsean

# DIE REISE



# BIDAIA SARETUZ

Postal bat adiskidetasuna da  
Partekatzeko modua da  
Joan-etorriko bidaia da

Ikuskizuna Alemaniako Kapfenburg Gazteluko Jaialdian estreinatuko da 2023ko uztailaren 21ean. Ikuskizunaren hasieran norbere bidaiaz hitz egiteko asmoz, postal bat banatuko dugu ikusleen artean. Nahikoa izango da agur bat idaztea, bizitzako emozio bati hitzak jartzea. Posta helbidea adierazteko eskatuko diegu ere. Postal horiek hurrengo emanaldian banatuko dira, bertara hurbilduko den publikoak erantzun ditzan. Ondoren, adierazitako helbideetara bidaliko dira berriro bueltan.

Eta horrela emanaldiz emanaldi eta jendez, jende, BIDAIAk adiskidetasun sare bat osatuko du.

**Idatzi zeure postala  
Hitz egin zeure bidaiaz**



Bidaitzea pauso bat ematea da

Bidaiatzea toki batetik bestera igarotzea da

Bidaitzea uretara salto egitea da

Bidaiatzea zure eta nire arteko historia bizitzea da

Bidaiatzea bizitza bizirik bizitzen asmatzea da

Bidaitzea atzera egiten jakitea da

Bidaiatzea itxarotea da


Bidaiatzea hitz bat esatea eta hitz bat entzutea da

Bidaiatzea gaur sentitzen ari zaretena da. Horixe da

Bidaiatzea esaldi bakarra idatzi eta dena esatea da.

Bidaiatzea POSTAL bat idaztea da

Bidaiatzea POSTAL idatzi, bidali eta bueltan beste bat jasotzea da





# BIDAIA

# DIE REISE TALDEA



# AGURTZANE INTXAURRAGA

## Eszena Zuzendaria eta Dramaturgia



Emakume bizkaitarra (Orozko 1966) eta antzerkigile donostiarra (34 urte bertan lanean). Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1992) eta Kultur Kudeaketako Masterduna (UOC 2022). ANTZERTIn diplomatua (1989). Urte berean HIKA Teatroa sortuko du. Orduetik, eszenatokiak bihurtuko ditu bere pasio eta ofizio. TARARA /LA TARARA (2022) eta TOTO (2023) izan dira HIKArekin zuzendu dituen azken lanak.

Halaber, HIKAren eskutik, erakunde publiko eta entitate pribatuentzat hainbat ekintza eta ekitaldi ekoiztu eta zuzentzen ditu. Azkena: Eskerrik asko etortzeagatik (Itun Soziala 2022. Zarautzeko udalerrian migrazioaren arloan garatutako jardunbide egokiei aitormena. Baleuko 2022). Antzerkiaz gain, telebistan eta zineman ere lan egin du. Telebistan EITBko Goenkale fikziozko saioan aktore zuzendari eta gidoilari lanak bete zituen (1994-2012). 2016an animaziozko bere lehen luzemetraia zuzenduko du: Teresa eta Galtzagorri (Dibulitoon Studio). Egun, ekoiztetxe berberarekin bigarren animazioko film luzea zuzentzear dago (urria 2023)

Isiltasuna da bere doinurik gogokoena.





# MARCUS ENGLERT

## Musika Zuzendaritza eta Musikaria

Marcus musikaria eta musika irakaslea da Schäbisch Gmünd-en. 2023ko abuztutik aurrera, ordea, Bilboko Deutsche Schulen musika irakasle ere izango da.

Piano-literatura klasikoaz gain, gazte-gaztetatik ia musika-estilo guztiekiko interesa eta gogoia piztu zaizkio.

Konposatzeko duen grinak, banda ezberdinetan jotzera bultzatu du eta proiektu ezberdinak izan ditu beti eskuetan. Musika eta antzerkia, biak uztartzea gogoko duenez, adibidez, 2018an Parler-Gymnasium en Schwäbisch Gmünd-en, Limbus-Die Wilde Jagd, gazteei zuzendutako rock musikala sortuko du. Azken bi urteotan, Itziar Ituñorekin batera 2020ean abiatutako proiektu honi heldu dio.



Industria, Politika eta Hiri-Soziologian Lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. (1997)

Antzerki ikasketak aldiz, Basauriko Antzerki Eskolan burutuko ditu (1995).

Harrezkeroztik bere ibilbide profesionala zabala, emankorra eta etengabea izango da hiru esparruetan.

**Telebista:** Goenkale (ETB), La casa de papel (2017-2020) Atresmedia/Netflix), edo Intimidación (2022 Netflix/Txintxua), besteak beste.

**Antzerkia:** Ugari dira HIKA teatroarekin egindako lanak. Besteak beste, Hitzak (2014), lan honekin aktorerik onenaren lehen saria eskuratu zuen Garnacha de Haroko XVI. Antzerki lehiaketan; Amantalaren Ahotsa (2012); Zeta (2005), edo Tarara (2022).

**Zinema:** Pablo Maloren Lasa eta Zabala (2014); Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren Loreak (2013), zeinekin Goya sarietan lehiatu zen. Silvia Munt-en Las buenas compañías (2023).

Horrez gain, Dangiliske (2000) eta Ingot (2016) musika taldeen abeslaria da.



**ITZIAR ITUÑO**  
Aktorea eta Ahotsa



A stage performance featuring a band and a soloist. The stage is lit with dramatic, high-contrast lighting, including several large, bright spotlights that create a sense of depth and atmosphere. The band members are visible in the background, and a soloist in a white dress is in the foreground. The overall mood is artistic and theatrical.

# BIDAIA-DIE REISE

**Kapfenburg Gazteluko Jaialdia-Uztailak 21**  
**ESTREINALDIA**











# BIDAIA

## FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

**Jatorrizko ideia: Marcus & Ursula Englert**  
**Zuzendari musikala: Marcus Englert**  
**Eszena Zuzendaria eta Dramaturgia:**  
**Agurtzane Intxaurreaga**

**Interpreteak:**  
**Itziar Ituño: Ahotsa eta eszena**  
**Marcus Englert: Pianoa eta ahotsa**  
**Dominik Englert: Perkusioa**  
**Jonas Schmid: Gitarra eta ahotsa**  
**Allos quartet: Xabier Zeberio, Francisco Herrero, Lorena Nuñez, Alejandro Martínez eta Iván Alzate**  
**Dangiliske: Janire Egaña eta Itziar Ituño**  
**Amaia Elizaran: Dantza**  
**Eneko Gil / Gorka Durán: Dantza**

**Espazio eszenikoa: Miren Intxaurreaga & Xabier Mujika**  
**Soinu-espazioa: Marcus Englert, Xabier Zeberio eta Felix Fewe Weng**  
**Argiztapen diseinua: Kay Möller**  
**Ikusentzunezkoak: Acrónica producciones**  
**Argazkiak: Acrónica producciones**  
**Jantziak: Agurtzane Intxaurreaga**  
**Diseinu grafikoak: Nagore Martínez**  
**Produkzio exekutiboa: HIKA Teatroa & Marcus Englert, Ursula Englert**  
**Zuzendaritza tekniko Alemanian: Felix Fewe Weng**  
**Zuzendaritza tekniko Euskal Herrian: David Bernués (Acrónica producciones)**  
**Talde Teknikoa: Castillo de Kapfenburg (Alemania), Acrónica producciones (Euskal Herria)**  
**Komunikazioa: Nagore Martínez**  
**Administrazioa: Asun Etxeberria**

**Banaketa Euskal Herrian: HIKA Teatroa**  
**Banaketa Alemanian: Marcus Englert & Ursula Englert**














Gutxieneko neurriak





# BIDAIA DIE REISE

**HIKA**  
TEATROA

**HIKA TEATROA**  
Aldapa Kalea 14, 20012 Donostia  
IFK/CIF: B20194106

**BANAKETA**

Telf: 633252200  
email: [banaketa@hikateatroa.eus](mailto:banaketa@hikateatroa.eus)  
[www.hikateatroa.eus](http://www.hikateatroa.eus)